



Demagun Errekaleor dugula etorkizun

Ez omen dira utopiarako garaiak. Aski da etxeko leihotik begiratzea kalera, edo mugikorraren pantailatik so egitea munduko panoramari, eta argi dago: ez da giro. Ezer ikustekotan, distopia dakusagu zeru ertzean, distopia etorkizunean.

DANELE SARRIUGARTE MOCHALES @daneleSM 2019ko otsailaren 28a



Azala kreaio espazioko kideek, ordea, jakin badakite halako garaietan ere, distopiak ekar lezakeen paralisitik aparte, batzuk badabiltzala alternatibak eraikitzen, tokian toki, eta txikitik. Hala, alternatiba horiek argitara ekartzeko eta transmititzeko sortu dute **Zirriborroak eta gero** egitasmoa. Ostegun honetan zabaldu dute 0. zenbakia.

Zer da Zirriborroak eta gero?

Lurralde zehatz batean gaur egun martxan dauden alternatiben inbentarioa egin, eta, hori abiapuntu hartuta, idazle bat gonbidatu dute **Zirriborroak eta gero**

proiektuaren bultzatzaileek (Ixiar Rozas, Arantxa Mendiharat eta Idoia Zabaleta). Ondoren, idazlearen zeregina izango da inbentarioko ale bat aukeratzea eta alternatiba hori etorkizunean proiektatzera. Fabulatzea baita asmoa, moldatzea, “kontaera espekulatiboak sortzea, ikusteko urruti-edo geratzen den etorkizun batean zer gertatuko litzatekeen, baldin eta alternatiba horiek hedatuko balira”.

0. zenbakia kalean: Errekaleor

Etiketetik abiatu dira. Araban dago Azala kreazio espazioa, Lasierra izeneko herrian, eta, Araban kokatua dago *Zirriborroak eta gero* proiektuaren 0. zenbakia, Gasteizko Errekaleor auzoan. Frankismo betean eraiki zen Errekaleor, Gasteizko aldirietan, industriaren hazkuntzari jarraikiz. XXI. mendearen hasierarako, ordea, higiezinaren espekulazioen ondorioz, hutsik zeuden hango etxebizitza gehienak. 2013. urtean, baina, zenbait ikasle bildu ziren eta han jarri ziren bizitzen. Orduz geroztik, hazi, bete eta biziberritu egin da.

Eta hain zuzen ere, Errekaleorren loraldia areagotu eta horren inguruan eraiki du etorkizun posible bat Katixa Agirre idazleak. *Loratze perimetroa*, hala jarri dio izenburua, eta amu hau bota dio hartzaileari: “Demagun fertilitate-tasa Europa osoan erori dela, non eta Errekaleorren izan ezik, autogestioa, garapen kolektiboa eta utopiaren lekuan, periferiaren periferian”. Eta nolatan gertatu da hori? Bada, *Loratze Perimetroa* izeneko halako eraztun bat dagoelako auzoaren mugan bertan, auzoa osorik inguratuz. Agirrek berak bideo batean azaldu duenez, “larrua jotzeko sortutako” eta “orduka ordaintzen den hotel erraldoia” da *Loratze Perimetroa*, pikadero handi bat, alegia.

Non eta nola jaso daitezke etorkizunaren zirriborroak?

Fabulak nola jarraitzen duen jakin nahi duenak hainbat aukera ditu eskura. Gaurtik aurrera, Arabako hainbat taberna eta iragate-tokitan lor daiteke paperezko ale bat: Agurainen, Aiaran, Amurrion, Artziniegan, Dulantzin, Iruña Okan, Laudion, Oionen, Gasteizen eta Zuian. Euskarri **digitalean ere irakur daiteke**. Irakurri ez ezik, narrazioa aditzeko aukera ere badago, autorearen beraren ahotsean, gainera.

Azkenik, Telegram eta WhatsApp aplikazioen bidez ere **jaso daiteke historia**, testuan ala audioan, proiektuaren kanalean alta emanda. Zabaletak azaldu duenez, proiektuaren zabalkundea ere baliatu nahi izan dute esperimentatzeko, eta horregatik gehitu dute hirugarren aukera ez hain ohiko hori. “Zurumuruaren” eta “bolo-bolo” ibiltzearen ideia hartu dute oinarri, egunero gurekin daramatzagun gailuak izan daitezten etorkizun posibleok nahinora hedatzeko eta kutsatzeko tresna.